




Bizkaitarrei
Bizkaieraz



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

Euskalerriko garraioak

Barroetatar Klaudio



Anaikide

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2016-2017 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 49. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 10an

49. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 10 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

EUSKALERRIKO GARRAIOAK

Barroetatar Klaudiok
Euskerazaleak Alkartean 2015. Azaroko 26n
Euskal asteen izandako itzaldia,
labur-laburrean.



MOVEUSKADI.

Euskadiko garraiolarientzako eginbide-planoa erakusten dauan orria da. Egunez egun dauz atzeratu diran garraioak eta zakelekoetan entzun daikiez egokituta.

Ona emen Garraio ezagunenak: Alababus, Attg, Bilbobus, Bizkaibus, Eusko Tren, Artxandako Funikularra, La Burundesa, La Union, Metro Bilbao, Renfe, Bizkaiko Transbordadorea, Juvisa....



BIDALARIEN GARRAIOA.

1- Leorrerako garraio sistema; autobusak...

Errepide sarea.

Errepide zati erabillienak

Etengabe ari dan sarea.

2- Burdin bide sarea; Trenak...

Espaniako eta Frantziako burdinbide zabalak.

Burdinbide estua.

Lastertasun andirako burdibidea.

3- Energia banatzeko sareak;

Olioduktoak.

Gaseoduktoak.

4- Itsasoko garraioak: BÍlboko Portua.

Pasaiko Portua. Baionako Portua.

5- Aireko garraioa.

LURRALDEAREN BALDINTZATZAILLEAK TA BILKABIDE ISTORIKOA.

Euskalerrria, Bizkaiko golkoaren ertzean eta Pirinoetako mendiaren tartean egonik, Europako errialdeen arteko igaro leku nagusietako bat da. Lurraldearen orografia goi-be andiko erliebea daukalako kominokazioak zailduten dauz ta asko gastatu da.... Euskalerrria istori andiko lurraldea izan da. Ez ainbeste erromatarren denboran mediterraneo aldera jo ebalako. Baña Goi-Arotik aurrera Santiagora doazen bide nagusiak erdi erditik igarotzen dabe Euskalerrria. Nafarroa ta Arabako lautadan barena geienbat.

ARRIBIDE (KALZADA) NAGUSIAK.

- Leon, Astorga, Briviesca, Zaragoza alde-ra...Kascante ta Korres.
- Ibilbide nagusia (erromatarrena): Arabako lautada, Agurain, Sakana, Iruñaraño. Iruñetik iparraldera, Orreagan Bordelekin lotzeko.
- Iruña, Lizarra, Viana.
- Gares (Puente Larreina), Fiterora ta Aibartik Kaskantera.
- Santiagorako bidea Garesen (Puente Larreinan) batu, Oskabarte, Burgos...
- **Mendabaldeko adarrak: Tours, Garazi, Orreaga, Iruña.**
 - * Italia ta Europakoak San Gilesetik.
 - * Oiartzunetik kostaldera Oviedoraño.
 - * Oriatik San Adrián... Arabako lautada (Agurain-Gazteiz), Burgos...





SALGAI SAREAK.

- Arraña Portuetatik...
- Baztan, Bizkaia, Gipuzkoatik burdiña..
- Nekazaritza, Oiala, Olinoa...

* Gaur egun Euskalerrriak daukan errepide sarea geienbat lengo gurdi-bidetatik dator. Ilustarzoaren pentsamoldetatik (XVIII mendetik). Mesta Portuekin lotzekoak dira.

1753an bukatu zan Iruñea ta Baltierra arteko errepidea Zaragoza ta Madrilerano.

1775an Urduñako bidea.

1789: Gazteiz-Durango-Urkiolatik.

Urte berean Nafarroa ta Gipuzkoa, Betelu ta Azpirozetik barrena, Altsasua-Beasain. Gazteiz-Bibora Barazarretik...

EUSKALERRIKO LEENENGO BURDI BIDE ZABAL IPARRALDETIK SARTU ZAN.

-Paris-Akize artekoa (1.854)

-Paris-Baiona. Madrid-Paris (1.864)


TRANBIAK: Bilbao-Areatza-Durango, Donosti-Errenderi-Tolosa.

Ekimen pribatuen eskuetan:

FEVE, Plazaola, Irati, Bidasoa, Vasco-Navarra, Urola.

Ego Euskalerrriko tranbia geienak gerra ostean desagertu ziran.

Españiako estatuak RENFE errail tarte-ko zabalaz iraunazi eban burdin bidea.



ANAIKIDE

AINTZAGARRIAK

(1954.08.24 Beasaiñen)

POZGARRI JAKU NONAI
LORA TXIT GARDENA,
BIZITZAREN JARRERA
BIKAIN DIRAUSKUNA.
ZORIONEZ BA DOGU
ANAIKIDE ONA
KLARETAR LORA EDER
EGIÑA DAGONA:
OTAMENDITAR PATXI
DANON EZAGUNA.

(1940.08.15-2015.08.AGURAIN)

IRUROGEI ETA AMABOST
LORA ZERUTARREZ,
EGINDAKO KOROIA
OSPATZEN DOT POZEZ.
ORRI BATZUK BA DITU,
GALDUTA KOLOREZ,
BAÑA JAUNARI DIOT
ESKATZEN BIOTZEZ:
ONDU DAIZALA ERRUKIZ
ETA MAITASUNEZ.

(2015.09.26-Bilbon)

BITXI EDERRIK BA DA,
EBATXU MAITEA,
EDERRENA DAUKAZU:
AMA IZATEA.
AMA DA, MAITASUNEZ,
BIZITZAK SORTZEA,
DANETAN TA BENETAN,
BIZKOR LAGUNTZEA,
LANPETUTA EGONARREN
ARNASA EMOTEA.

ZUK ALAN EGIN DOZU
KLARETAR ARTEAN,
EURENGAN FRUITU ONAK
IKUSI GUREAN.
IRAUN EGIZU TINKO,
AMATASUNEAN,
JAUNAREN AMA SANTAK
BABESTUZ MUNDUAN,
SARITU ZAITZALA, GERO,
ZORION LEKUAN.

(1936.09.15-Azkoitin)

BEGI AURREAN DOGU
GAURKO JANARITZA,
ANAIKIDE BATERI
EINDAKO ESKEINTZA.
USAI GOZO TA ITXURAZ
EDER ABERATSA:
ARDO TA SAGARDOAZ,
TXAKOLIN TA ISATSA
ORI BAÑO GEIO DA,
GAUR, PATXI MUGERTZA.

(2.015-09-29 /RAFARI.
Aguraindik)

ZURE OMENEZ DOA
BIOTZEZ MEZU AU
ESKATUZ RAFAELI
OSASUN TA ENPARAU.
BAITA, TXANPON GAIETAN
EZ IRU TA EZ LAU,
BAIZIKAN BAKARRETIK
SORTZEKO AMALAU,
KONPON DAGIZUN ONDO,
MUNDU TRAKEZTU AU.

Bilbao, 2015.09.26.

(En libre)

Ebatxu maitea:

Posees el mejor tesoro: SER MADRE.
Y ser Madre es: dar y crear por
amor/Tratar con cariño y ternura/
Animar al desolado/Consolar al triste/
Acompañar al abandonado/Aliviar al
necesitado...

Así te has comportado con los claretianos durante muchos años, ayudándoles callada y maternalmente en su tarea misionera.

Que la Madre Celestial te ampare en esta vida y después, te premie con la felicidad en el cielo.

IÑAKI SAN NIKOLAS

(2.015.10.24)

Mendiko zuaitz eder
sendo ta lardenak,
suster eta lurrian
dagoz errothuak.
Errotu zaitu, Iñaki,
betiko zinitzak,
Andre Mariren biotz
semearen deiak,
ta klaret santuaren
urrats zerutarrak.

Iñaki, gaurko egunez,
mundura etorria,
jaso zendun ugari,
Jaunaren grazia.
Grazia, maitasunez
dagonez jantzia,
sutu ta aldatzen oi du
gizaki guztia:
gaurtik izango zera
MIXIOLARIA.

JESUS ROS

(2015.10.04)

EGUN EGUZKITSUAN
DANOK GERA POZTEN,
GIRO ON EDERRA,
GUSTORA GOZATZEN.
ALAN GERTATZEN ZAIGU
GAURKOZ AGURAÑEN,
KLARETAREN ETXEAN
DIRALAKO ALAITZEN,
JESUS ROSEK, URTEAK
BAI DITU BETETZEN.

MUNETXE

Agurain, 2015.10.24



Xabiertxo Gernikako azokan

(Palmi Merino)

EUSKERA ZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2015eko sari leiketa. bostgarren saria

Urrillaren azken astelena zan eta urteroko lez, Xabiertxo eta bere familia Gernikako azoka ospetsura eguna emateko asmoz, joan ziran.

Xabiertxo, amar urteko mutilla zan. Familia; aita, ama, berak eta amalau urteko arreba bikiak osatzen eben. Nekane eta Goizane, bikiak, ikasle eta kirolari oso onak ziran, igarilari apartak eta txapelketa askotako txapeldunak ziran.

Xabiertxo ostera oso ezberdina zan, ikasteari ez eutsen jaramon askorik egiten, beti kalean jolasten eta sarritan urratutik, odolatan joaten zan etxera.

Gernikara joatea ez jakon larregi gustatzen, azokatik, ama edo aitaren eskutik lotuta beti joan bear eta. Baña beste alde batetik ainbat atsegin jakozan animaliak ikusteko aukera ona zan.

Bilbotik Gernikara trenez joan ziran. Bertan, jendetza, izugarria zan. Bidai osoa danok estututik eta Gernikara eltzean askoz geiago. Kaleetatik danok estu-estu, ia ezin ibili eta orduan aitari asmo on bat oti jakon:

- Ama eta biok erosketak lasai eta erosoago egiteko, zuek, "txiki-gunean" geratuiko zarie eta erosketak amaitzean zuen bila joango gara, baña ondo portatu, eta zu, Xabiertxo, zure arrebeen esanak bete egizuz.

Xabiertxok, amorratutik esan eban:

— Baña, nik "animali-gunea" ikustea gura dot, aita!

-Bai, bai, --erantzun eutsen aita,-- ori, geroago. Danok alkarrik joango gara



baña zure jokabide onaz itz emon bear deuskuzu Xabiertxo, eta zure jokabidearen ordeaz, saria edo zigorra joango jatzu. Badakizu mutiko, "aditzaile onari, itz gixi".

Ori esanda, ama eta aita joan ziran. Xabiertxok, "agindua zorra, esan oi dala", ondo ekian eta orregaitik ondo portatzea erabaki eban.

Nekane eta Goizanek txiki-gunetik bira bat emotean, euren gustoko toki aproposa aurkitu eban. Baster batean esku-lanak egiten ebezan: erestunak, lepokoak, eskuturrekoak eta beste asko bitxi politak. Xabiertxorentzat, toki aproposa ere aurkitu eban. Berari marrazkiak egitea asko gustatzen jakon eta naiko ondo egiten ebazan, orregaitik poz-pozik marrazki basterrean itzi eban.

Mai aurrean jesarri orduko, paper batzuk eta margo guztietako arkatzak emon eutsoezan eta bereala bere begiko animaliak marrazten asi zan, astotxoak; neurri guztietako astoak. Bere alboko mutikoa ago-zabalik begira eta begira egoan eta arrituta esan eutsen:

.— Nork irakatsi deutsu ain ondo marrazten?

.— Inokbez, --erantzun eutsen Xabiertxok--, nik neuk irudiak ikusi ala egin daikedaz eta gero egitearen egiteaz buruz marrazten dodaz.

.— Baña, asto guztiak bardiñak egiten dozuz. --esan eban mutikoak-- neurri ezbar-diñak baina gorputz berdin-berdiñekoak, eta astoak ez dira danok bardiñak. Nik asto polit bat daukat eta azokan dago orain, margo bat egin gura deitsozu? nere aitak sarituko deitzunaz ziur nago. Zatoz nigaz eta zuk zeuk ikusi!!

.— Ezin dot, --esan eutsen Xabiertxok mutikoari-- emen geldi itxarotzen egoteko itz-emon deitsot nire aitari, orrez gañera, nire arrebeak ortxe dagoz nire zain.

.— Baña laguntxo, --erantzun eutsen mutikoa-- alditxo bat baño ez da izango. Txizal-larri zara eta alkarrik joango garala esaezu.



Buruian-sartzeko erreza zan Xabiertxo eta olan egin eban. Nekane eta Goizanek susmo-biderik ez ikusten, esku-lanetan jarraitu eban.

Abere-gunea ondokoa zan eta laster, astotxoaren aurrean egon ziran.

.— Auxe da "Pantxo" nire astotxo eta ori, nire aita. Aitara eizuz papera eta margoak nik aitari esaten deutsodan bitartean. — Eta mutikoa bere aitarengana Joan zan.

Xabiertxo, adurra dariola egoan "Pantxo" astotxo ikusten, inoiz ez eban orrelako asto politarik ikusi: naiz eta asto txikia izan, xuri-txuria, dizdiratsu eta leun-leuna ikutzean. Gure mutilla arriburirik egoan eta bereala irudia egiten asi jakon baia bere lanean asi orduko, aots-lodi bat entzun eban:

.— "Gezurrak buztana labur " mutilla.


Xabiertxo "aia zabalik" geratu zan. Entzundako itzak Pantxoren agotik urtengoak zirala iruditut jakon.

.— Ez, ezina da, --pentsatu eba-- astoek ez dabe itz-egiten. — Eta irudiagaz jarraitu eban.

.— "Zuri guztia ez da uruna ". — Berrira aots a.

.— Itz-egiten al dozu? — Galdetu eutsen Xabiertxok astotxoari.

.— Ni neu baio astoago danagaz bakarrik, eta zu mutil, nire bidetik zoazala dirudi.



.— Zer diñozu, zein bidetatik?

- Ni, mutilla, --esan eutsen astotxo-- zu lako mutil txotxolo eta papartza nintzan, gurasoen arrazoiak ez nebazan entzun gura, ikastolan irakasleei kasurik ez eta orren ondorioz ikusten nozu onelako itxuraz,

baña zuk gogoratu au; "Utsegiñaz, utsegiteak zuzentzen dira".

Xabiertxorentzat gertakaria sinistu-eziñekoa zan. Orain bere biurrikeriaz guztiz damuturik egoan eta bereala negar zotinka asi zan.

-Xabiertxo, Xabiertxo!! Itzartu zaitetz mesedez!! —Goizaneren aotsa entzuten egoan—Amatxo eta aitatxo etorri dira eta opari bana ekarri deuskue! Baña mutiko, lo bete-betean geratu zara zure irudia amaitu barik.

Egia zan, paper-orrian astotxoaren buru bat baño ez zan agertzen, bere ondoko jesarlekuan umerik ez eta bere arrebek pozik egozan zintzo portatu zalako. Gurasoak be, poz-pozik lardeltxo bat emon eutsoen Xabierri jostaillu bat zala esaten, berak urduritsu zabaldu ebanean, kolorga geratu zan.

Kutxa eder baten barruan, astotxo bat, xuri-txuria, dizdiratsu eta ikutzean leun-leuna egoan..?

Orrela zan ala ez bazan sartu dadilla kalabazan...

Meripal



Rouco Varela Kardenala

- 1.- Rouco Varela izan da autsak arrotu dituna, sinismendun geraden guztiok ainbat arritu gaituna: kardenal orren bizitza ez da beartsua ta ituna, egia bada egunerokoan prentsak ekarri diguna.
- 2.- Españiko elizan burua izan ote da ondradu? eta berekin izango ditu konta ezin ainbeste gradu: milloi ta erdi euro balio dun etxea berak du, elizari on gutxi egingo dio orrela jarraitzen badu.
- 3.- Madrilleko leku ederrenean etxe ori omen dago, lareun metro koadro gertu asko baiño zabalago; sei kuarto ta lau komon ditu, zer bear luke geiago? bear zuan da or jarri dute iñoiz baiño ederrago.
- 4.- Lareun milla euro gastatu etxe guztia berritzen, da guztia elizan kontura ez aiz bat ere arritzen. etxe bat naita etxerik gabe asko mundua korritzen Rouco Varelak Ebanjelioak ez ditu irakurritzen.
- 5.- Kardenal au ez ta izango beartsuan, aldekoa? Edo bestela burua dauka ezaguera gabekoa; kotxe berri bat ere eskatzen du markarik onenekoa, Elizan norbait agertuko da orri kargu artzekoa.
- 6.- "Bi monja, ere eskatu ditu etxeko lanetarako, osatuko da eskatutzen dunean danetarako? irurogeita emeretzi urte, agoztuan ogeirako, urte geiegi ez al dirade daduzkan kargutarako?
- 7.- Zartu ezkerro estropozoak beti edo geienean, konturatzen naiz adin orrekin neroni nabillenean; Rouco Varelak ez du bizi nai modurik umillenean, Aita Santua beartsu-txiroak txalotzen dabillenean.
- 8.- Gotzai ta apaiz jauregi aurre oso asarre apartak, "ROUCO, LEE EL EVANGELIO" jarritzen dula pankartak. beste jende mordo batek ere egundoko zalapartak, zalantzik ez da, izango ditu eskutitzak edo kartak.


9.- Aurrez Sukiak zuan etxea
eskeñi omen zitzaion,
alde on danak berekin zitun,
baiña ezetz eman zion;
berarentzat pobregia zala,
orra berak zer derizkion.
ona dago artzai ibiltzeko
Aizgorri edo Ernion.

10.- Gotzai ta apaiz badira, ordea,
alde erten zaizkionak, esanez,
Varelaren pausoak
dirala apal da onak;
orrelakorik ez du esango
baizik arrazoi sakonak
apirillan amabosteko prentsan
irakurrita dagonak.

11.- Madalena deritzan emakume
Roucon illoba astuna,
baldin giroak laguntzen badu
jantzirik bear ez duna;
"Interviú" errebistan
eder agertu zan jolastuna
osaban faktura ikaragarriak
esanda dagon iztuna.

12.- Nere izketa auek dirade
gaur nunnaitan dabiltzanak,
pekatariak danok gerade
mundu ontan gabiltzanak;
santu aundiak egiñak daude
len pekatari izanak;
arren, gogoan izan gaitzala
gurutz batean il zanak.

Txomin Garmendia



Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (XVI)

Kolon'tar Kristobal'en bizitza'tik datorrena.

1.476ko udan Kolontar kristobal lenngoiz eltzen da Portugalera, denbora onetan ondo baiño obeto ezagutzen eban Lur-Arteko itxasoa, eta baleiteke Atlant itxasoarekin amesetan ibiltea, Zipango⁽¹⁾ ugarteak aztu barik.

1.476an Dagonillaren 13an ikaragarriko itxas-borroka bat egon zan erdi-ugarte onen San Bizente lur-beso aurrean, Jenobako lau itxas-ontzi ta Frantziko itxas-lasterkariaren artean, auek Kolontar Kristobalen osaba, Kasenobe ta Koullontar Gillaume agindupean egon ziranak.

Borroka onetan sua artu eban Kolonen itxasontziak, bera ta beren lagunakaz batera Jenobako itxasontzi bateri erasotzen egon zirala, ta uretara jausita arraun baten laguntzagaz, uger joan egin bear zuen Portugaleko izparter edo itxas-ertzean Lagos'eko ondartzara.

Eta Kolontar Kristobal gazte onek, Lagos'etik baleiteke 15 milla⁽²⁾ edo 24,135 Km. egon ziran Sagres ta San Bizenteko lur muturretara joatea, Sagresen itsastar Enrike Portugaleko erregearen semeak euki ebalako beren itxasoko-eskutitz'gintza edo ta mapagintzaren lantegi-zilborra.



Borroka onen ziurtasuna, Kolontar Kristobalen aldi bereko, Ruy de Pina Portugesa, eta Palenziako Alonsok argitaratu eben, Vn Fernando katolikuak egiztatu ebana, Diego de Barrela'tar Mosen'eri Iraillaren 5n egunean bialdu eutson esku-titzan.

Kolontar Kristobal borroka orretan, 16 urte euki ebazan.

Vn Fernando katolikuak "Kolon'tar Kristobal"en izenagaz idazten dau eskutitz au, Kristobaleri oraindiño "Kristoforo Kolonbo" esaten eutsoenean.

1.477ko Otsaillean, Kolontar Kristobalek beren 17 urtegaz, eta itsasoaren jakiturizko arloetan Llull'tar Ramonen irakaspenak ondo ikasita, Islandiako bidean orduko Thule esaten

(1) Zipango = Japon'eko ugartediaren antziñako izena. (2) Milla batek, Gaztelaraz = nudo esan gura dau, eta 1.609m. daukaz.



eutsoen ugartea ezagutzeko eta itsas-bidai orren zeaztunak artzeko, urten eban itsasora.

1.477ko urte erdian Kolontar Kristobal itsasoaren zeaztasunezko jakin barriekaz Lisboan aurkeztu zan, eta itsasoaren jakitun andiko gizonakaz alkarrizketan ibilita, bere aipu ta ospea gorantza joan ziran.

Kasastar Bartolome lekaideak Kolonengaitik esaten eban: Los Santos lekaidetxera joaten zala Mesa Santua entzutera, eta lekaidetxe onen iraspena, Santiagoren zaldunezko gizon aundiaren emazte ta alabaren etxea izateko izan balitz lez eraiki ebela, gizonak gudan egoten ziran bitartean, neskato ta andre garbitasun, zintzotasun eta agindupeko ziñ-itza emonda, euren senar, senargai eta semearen alditarako urruntzean, berton itxaroteko zala.

Los Santos lekaidetxe ori, gudari-elkargoko Santiagoren lekaimeak zuzenduta egon zan.

1.478-1.479ko urteetan Lisboan, Kolontar Kristobal lekaidetxe ontara joaten zanean ezagutu eban bere emaztea izango zan Moniz eta Perestrelo'tar Filipa, beragaz ezkontuta.

Eta 1.479-1.480ko urte onetan jaio zan Kolontar Kristobalen seme Kolontar Diego, gero Itsas-zabalaren ondorengo bidetik, itsas-aundiaren bigarren Amirala izango zana.

Kolontar Kristobalen amagiñarrebak, bere gizonak eukezan itsasoko tresneri guztiak emon eutsozan Koloneri, onek poz aundia erakutsita.

Eta bere emaztearen sendi bidetik, Portugaleko andikitasunen arteko ate guztiak zabalik aurkitu ebazan.

Orren argibidea, Portugaleko erregeta andikitasunezkoak beragandik bezeozer jakin ebelako da:

- a) Erregeen arteko mailan, ondo baiño obeto ezagutzen ziralako.
- b) IVn Karlos Bianako printzea Portugaleko erregearen arreba Katalinagaz ezkontutako egon zanean, oso ezagutua ta onartua izan zalako gorteko andikitasunengaitik.
- d) Eta batera, Nafarroako IVn Karlos erregearen seme, Vn Fernando katolikuaren loba, eta I Isabel erregeiñaren lenengo maillako lengusua izanda, argi dago Kolontar Kristobalek, ez ebela ezeren eragozpenik euki erregearen maillan sendi aundi baten alabeagaz alkartzeko, eta beren sasoi ederrenetariko 19 urte zituenean ezkontzeko.

Eta gero, Madeira ugarte ondoan, Portu Santuko Ugartera bere emazte ta semeagaz bizitzen joanda, andik itsasoratzen zan, Azores, Madeira, Kanarias, Orlegi lur-muturraren ugarteak eta Ginea ikustera joateko.

1.480ko urte onetan Kolontar Kristobalek, irakurri bear izan ebazan, 1.474ko Bagillaren 25ean Florenziako fisikari ta matematiku aundia zan Toskanelli ta del Pozotar Paolok, Portugaleko erregearen senidea zan Martins'tar Fernando kalonje edo

eleiz-legegizonari, bialdu eutsozan eskutitz ta mapa bereziak.

Toskanellik, Martins'tar Fernando-ri eskutitz eta mapa onegaz esaten eutson,: Itxasoko eskutitz edo mapa au, nire eskuekaz eginda dago, eta margoztuta dagoz zuen Portugaleko itsas-bazter ta ugarteak, lur-buru-raiñoiko bitartean⁽¹⁾ ta kontuan artu bear dozuen gauberdin-lerroa⁽²⁾, bai zenbat leko⁽³⁾ erabili bear dozuezan, ugari ta gozatsutasunezko aberats toki orreitarra eltzeko. Toki orreita-tik asi bear zenuke zuen mendeba-lerantzako bidaia, eldu bear zareten lekuetara.

Ez arritu nire eskutitzetan Mende-bala esatea, onkailu, kanela, gaz-pi-per, atsegintasunezko lur orreri, oi-turazkoa daukagulako gauza orreik Ekialdetik datozela esaten.


Leku orreik, Itxasoaren beko boil-er-di edo lurrerditik⁽⁴⁾ Sartaldera bidera-tzen diranak, Mendebaletik aurkez-ten diralako, eta lurraren boil-erdi edo goiko lurrerditik bideratzen diranak, beti Ekialdetik.

Kolonek eskutitz au berriz idatzi ta aldatu ebenean, Silbio ta Pikolomi-ni'tar Eneasen "Historia Rerun" egaz lotu eban eta "Kolonbina Liburute-gian zaintzen da", Sebillako Urian "Laran-Ondo Aterpe edo Bailan" kokatuta dagoena.

Kolontar Kristobal ez zan pozik ge-ratu eskutitz ta mapa orretan ekarten ebenagaz, eta

Toskanelli berari idatzi eutson bes-te eskutitz bat, zeaztasun orreik argi geiagoaz ulertzeko.

Argi ikusten da Kolontar Kristoba-lek, al eban jakiturizko zeazpen ta zeaztasun guztiaz batzen zituela



eskutitz ta itsas-eskutitz edo mapatan aurkezten ebazan au-rreko txeetasun ta oarketak, barnean euki ebazan egarrizko asmakizun aundiak, bere bizi denboretan bete gura ebazala-ko.

Kolontar Kristobalek, liburu, agiri ta idazki askotatik, ainbat gogaketa, galdeketa eta oarketa eginda gero, ondorio onetara eldu zan: Indiaseko lurrarteraiño peninsula onetatik, borobil mundu onen itzul-ingurutik⁽¹⁾ 282° besarkatu egiten ebazala, eta 360°'tik 282° kendu ezker, Katayo⁽²⁾ ta Lisboako bitar-tea 78°'koa zala.

Eta lur-gerrirantza 2/3, 78° oneik 56° edo 50 milla Kanaria-sen neurrian gitxi gora beran berentzat izan zirelako, Mende-baleko bidetik peninsula ontatik Indiaraiño, 3.900 milla edo 975 leko urtetan eutson Gomeraren obo⁽³⁾ neurrian.

Eta utsegiteko bide ortatik, neurtasun orreikaz Indiaren Ekialdeko lurak, nai gabe Amerikaren Atlant-lurraldeetan kokatzen ebazalako, ez da arritzekoa bera Ameriketako lu-rraldeetara eldu zanean, Indiako lurraldeak zirala esatea.

(1) Lurbururainoiko bitartea = distancia al Polo.
(2) Gauberdin-lerroa = Linea Equinocial. (3) Leko = legua. (4) Beko boil-erdi edo lurrerditik = hemisferio inferior.

(1) Mundu onen itzul-ingurutik = de la circunferencia de éste mundo. (2) Ka-tay edo Katayo = Txinari emoten jakon izena Erdi-Aroan. (3) Obo = latitud, paralelo. Gomeraren obo-neurrian = paralelo de la Gomera.

1.478ko urtetik aurrera Kolonek bere ustean asi zan esaten, zeintzuk ziran itsas-aundiaren zabalta-sunezko neurriak, eta agertuko ziran gauzak bide orretatik, 1.484ko urterarte geratu barik egonda, beren gogoko gauza orreikaz.

1.483ko urtean Kolonek, ba eukazan asmakizunezko egitarau oneik mugatuz, idatzi ta erabagita, baiña, Itxas-ontzi ta mariñelentzako bear ziran ondasunak berak naikoak ez eukazalako, laguntzaren egarri aurkeztu zan, itxaropenezko gertaldi ori aurrera eroateko.

Eta orretarako, Kolontar Kristobalek euken egitamu ori, Portugaleko errege IIn Juaneri aurkeztea erabagitu eban.

Kolon, Portugaleko errege IIn Juanegaz egonda, aurkeztu eutson zeregiñezko egitaraua, au izan zan: Mendebal edo sartaldeko bidetik Eguerdi edo itsas-zabalaren mukan eguzkia goialdi aundienean dagoenerantza joanda⁽¹⁾, lur zabal, ugarte eta zoriontasunezko lur sendo ta aberatsak, urre-gorri, urre-zuri edo zidar, pitxi edo txirlarri, arri-bizi edo

arri-argi ta amaibako giza-semeak aurkituko ebazala.


Eta bide orretatik berak ulertzen ebala, Indiako lurraikin topo egingo ebala, bai-ta Zipango ugar-te aundiekin⁽²⁾ be, eta Kaizar edo Kan Andiaren erregetzagaz.

Aurkitutako gauza guzti orrein orde, baldintza oneik ipini eutsozan Portugaleko IIn Juan erregeari, bera gizatsu aundi lez jantziteko: leen, onartu egiela urre-gorritzko zalduna izatea.

Bigarreneko baldintza bera ta beren ondorengoai "Jaun"⁽³⁾ gorengo izenagaz deitzea.

Irugarren bearrezko baldintza: Itxas-zabalaren Amiral-Aundiena izatea.

Laugarren, gaiezko gauzetatik, erregeak artzen ebazan Urre-gorri, zidar, bitxi⁽⁴⁾, arri-bizi edo arri-argi⁽⁵⁾, menasta⁽⁶⁾, onkailu⁽⁷⁾, pizkailu⁽⁸⁾, gaz-piperki⁽⁹⁾, kanela ta beste onuratsuzko edozein gauza guztietatik 10ena berentzat izan daitela.



(1) Mundu onen itzul-ingurutik = de la circunferencia de este mundo. (2) Zipango ugar-te aundiekin = Marko coloren esanetatik, Japonen antziñako izena. (3) Don edo Jaun deitzea = tener tratamiento de Don o Señor. (4) Bitxi = Joya o alhaja. (5) Arri-argi = piedra preciosa. (6) Menasta = mineral, metal en bruto. (7) Ongailu = abono. (8) Pizgailu edo Pizkailu = producto, hierba o flor para reanimar. (9) Gazpiperki = salpimienta.

Eta askenez, joan-aldi bakotzaren antolakuntza eta egiten ziran bidalgo guztietatik, berak ordezkatzeko eskubidea eukitea, ibilaldiko talde bakotzaren baliozko kopurutik zortzirena ordaintzeko.


Oar txiki bat zati onetan.

Oraiñarte idatzita daukagunagaz eta orduko erregearen izaerakin, baten batek ulertu leuke Kolontar Kristobalen ain lotsabageko eskaeraren eskeintzari, al-osokerizko sasi-jainko ta odol-ixurtzaille errege aiek, erioztzarekin ez bazan izaten, zigorkada edo astiñaldi gogor barik itxi ote leukiela ?.

Argi dago Kolontar Kristobal European orduko andikitasunen artean, onartuta egoala, IVn Karlos Nafarroako errege ta Margaritaren seme lez, eta Fernando ta I Isabel katolikuaren leen maillako loba edo ta senidea izan zalako.

Zer gertatuko jakon, eskale bat edo ta, Jenobako be maillaren erriko mariñel Kolonbotar Domeniko eta Fontanarroa'tar Susanaren semea izan bazan, 1.470-1.473ko urtetan Jenoba eta Sabonako notari-agirietan, illagintzaren⁽¹⁾ bizibideekin agertzen zanari ?.

Ez dot ustegabe ona ekarten Jenobako Kolonbotar au, Jenobezak Kolontar Kristobalen aurka egiteko edo ta Kolontar Kristobalek Ameriketako lurraldearen agerketa bidez, artu ebezan entzute eta ospe guztiak eu-



rekandu, edo agerketa orrein eginkariak eurak izan ba ziran lez agertu gurean, ille zaltzaille Kolonbotar au zala Amerikaren agertzaille esaten eban, Berd ta Martorelltar Grabielek egia argitara agertuaz, Jenobezaren naikeriak ezereztuta.

(1) Illagintzaren = batanero, lanero, tratante en lanas.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.015'eko urtean Epailla'ren 21'ean

E u s k a l a s t e a

Urte guztietan lez, aurten be Euskerazaleak Alkartean ospatuko da.

2016-11-21

2016-11-22

2016-11-23

2016-11-24

2016-11-25



ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK

Tokia: Colon de Larreategi – 14 - 2ª esk.

Ordua: **Zazpiretan**

EUSKERAZALEAK

IPUIN SARIKETA

Mesedez bialdu CD edo disketea

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- **Azillaren azkenerako** EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urtarrillean.
- Sariak bost izango dira:

1. ^a	300 euro	4. ^a	120 euro
2. ^a	240 euro	5. ^a	60 euro
3. ^a	180 euro		
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan edo **info.euskerazaleak@gmail.com** izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA


ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar
..... klean (auzoan..... zenbakian
..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN **“ZER”**. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!



Bagera!

Gu (e)re bai

Gu beti pozez, beti alai!

**Sebastian bat bada zeruan
Donosti bat bakarra munduan
Ura da santua ta au da erria
Orra zer dan gure donostia!**

**Irutxuloko gaztelupeko
Joxemaritar zaar eta gazte
Joxemaritar zaar eta gazte
Kalerik kale danborra joaz
Umore ona zabaltzen or dijoaz
Joxemari!**

**Gaurtandik gerora penak zokora
Festara! Dantzara!
Donostiarrai oiur egitera gatoz
Pozaldik!
Inauteriak datoz!**

Bagera!

Gu (e)re bai

Gu beti pozez, beti alai!

Donostia